

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Zur bera

INTSINIS PINU BELTZA (*Pinus radiata*) bezala Ameriketarik ekarritako bi zuhaitzek nire udazkenaren paisaia erretzen dute. Akuiluak idiaren saihtsean bezala, sast! Sastatekoa begietan. Kolore deigarrienak, inondik ere, gustuko ez ditudan bi zuhaitz horienak. Ikaragarritzko zurak emango zituztenaren ustetan basozaleek ekarri eta hedatutakoak.

Norteko haritza edo haritz amerikarra bata, *Quercus rubra*. "Rubra" hitzak dioen eran, udazkenean hostajea gorri-gorri jartzen du, eskarlata. Zura ere hala-koxea du, gorritzat. Haritz, erkametz, ametz eta arte, bertako quercustarrenaren aldean eskasa du egurra. Hori gutxi balitz, geurean gaitzak erabat jota dago, norteko harizti sano bat topatzea ez da erraza. Ipurditik eraitsitako zuhaitzen bat ez bada, arba osoak jausita edo zuhaitzean bertan ihartuta dauden adarrak ikusiko dituzu. Gaitzak jo eta eraitsi, eta aurrera egiten duten zuhaitz bakanek erdipurdiko zura... Alde hortik! Aitatzen didan guztiari norteko haritzik inolaz ere ez aldatzeko gomendioa ematen diodala urteak dira.

Haritz hori gorritz jantzen duen jostun beraren titarea sumatzen da bigarrenaren udazkeneko soinekoan ere. Hori-hori, urrezkoa hau, urrutira ere nabarmena. Idi-bihotz arbola edo tuliparbola, *Liriodendron tulipifera*; hitzez hitz, idi-bihotza edo tuliparen tankerako liliak ematen dituen zuhaitza. Hori ere amerikarra, Mendi Harritsuetan eta Ohio ibaiaren arroan basatia. Ale bakan batzuk badira, han eta hemen, kale, parke eta baratzeetan. Basoan, ordea, sailean jartzen dela ez da urte asko. Kategoriako zura ematen zuela izan zen zuhaitz hori aldatzen hasteko aitzakia. Horixe aitzakia! Horrek ere egur makala ematen baitu. *Populus nigra*, makalarenaren tankerakoa, gehienez ere 480 kilo metro kuboko. Zeharo eskasa. Papera egiteko eta asko jota hilkutxetarako.



HULSNUSSERY.COM

Haritz amerikarra (*Quercus rubra*).

Bi zuhaitzok, baina, uztarri batean behinik elkartu daitezke: azkar hazten dira. Tuliparbolak hamaika urtean hamabost metroak harrapa ditzake. Basozale diruzale, zaletasun bikoitzaren emaitza. Eta begietan min.



Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684

e-posta: ondarre@hispavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)

943 453 588 · www.sigacus.com